

67/2020 FORU AGINDUA, abuztuaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez prozedura abiarazten baita foru agindu baten proiektua prestatzeko, haren bidez eguneratu dadin 26/2012 Foru Agindua, martxoaren 20koa, Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezartzen duena maisu-maistren kidegoan, dagozkion eginkizunak betetzeko Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, 92. eta 93. artikuluetan, ezartzen du zer baldintza dauden Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakaskuntza emateko.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen irakaskuntza kidego horietan sartzeko, horietara igotzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko erregelamendua.

Eginkizunak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan betetzen dituzten maisu-maistren kidegoko irakaskuntza espezialitateak ezarri zituen azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuak. 2.2 artikulua ezartzen duenez, irakaskuntza espezialitateak dira, hartan ezarritakoez gain, hizkuntza koofizialei dagozkienak, hala arauturik duten autonomia erkidegoetan.

Aurrez azaldutakoaren ondorioz, martxoaren 20ko 26/2012 Foru Agindua eman zen, eta haren bidez Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezarri zen maisu-maistren kidegoan.

Ekainaren 27ko 9/2017 Foru Legearen bidez, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen titulua eta artikulua batzuk aldatu ziren. Xedapen gehigarri bakarrean ezartzen denez, "Euskararen Foru Legea aplikatzearen ondorioz garatu edo xedatzen diren xedapen eta egintza guztien gaztelaniazko testua izendapen berri horretara egokituko da, eta, hala, "euskeraz" izendapen berria erabiliko da "vascuence" hitzaren ordez".

Horrenbestez, bidezkotzat eta egokitzen jotzen da Euskara (Nafarroa) espezialitatearen gaztelaniazko izena aldatzea, "Euskera (Navarra)" izena har dezan "Vascuence (Navarra)" izenaren ordean.

Hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak erabaki du prozedura abiaraztea foru agindu baten proiektua prestatzeko. Foru agindu horren xedea izan da eguneratzea 26/2012 Foru Agindua, martxoaren 20koa, Euskara irakaskuntza espezialitatea ezartzen duena maisu-maistren kidegoan.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1.g) artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Prozedura abiaraztea foru agindu baten proiektua prestatzeko, haren bidez eguneratu dadin 26/2012 Foru Agindua, martxoaren 20koa, Euskara (Nafarroa) irakaskuntza espezialitatea ezartzen duena maisu-maistren kidegoan.

2. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzua izendatzea espediente hau prestatu eta tramitatzeko organo arduradun.

3. Foru agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia, Idazkaritza Tekniko Nagusia eta Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzura.

Iruñean, bi mila eta hogeiko abuztuaren hamabian.
EZKUNTZAKO KONTSEILARIA, Carlos Gimeno Gurpegi